



AYUNTAMIENTO DE PUEYO
PUIUKO UDALA
LA PLAZA, 12
31394 PUEYO
TFNO.: 948 72 10 22
e-mail: pueyo@agrupacionvaldorba.es

**MARÍA ROSARIO GUILLÉN GUILLÉN, Puiuko Udaleko Alkatesa Andreak,
Jakinarazten du:**

Urtebete baino gehiago da COVID-19ren pandemia gure bizitzetara iritsi zenetik eta gure ohitura sinpleagoak aldatzera behartu gintuenetik. Ez genekien pandemiaren aurreko bizitzari berriro heldu ahal izango genion, ezta noiz egin ahal izango genuen ere.

Orain, 2021eko uztailean, badakigu baietz. Egoera orduan baino askoz hobea da, txertaketak aurrera egiten du eta pertsona asko jada immunizatuta daude. Gero eta hurbilago ikusten dugu argia tunelaren amaieran.

Horregatik, logikoa da gure jokabidea osasun-egoeraren erritmo berean aldatzea. Denok nahi dugu pandemiaren aurreko bizitza berreskuratu. Hala ere, ezin dugu bera baino azkarrago joan. Gauza batzuk ezin ditugu oraindik egin. Ezin dugu erabateko normaltasun-sentsazioa eman, besteak beste, ez delako benetakoa. COVID-19ak hemen jarraitzen du eta bere ondorioak oso larriak dira.

Hori dela eta, Puiuko Udaletik herriko jaiak bertan behera uztea beste aukerarik ez dugu. Tristura handia dugu, baina, aldi berean, gure jai maiteez gozatu gabe azken urtea izango den esperantza handiagoa daukagu. Ziur gaude lortuko dugula. Egiten ari garen ahalegina oso handia da eta fruituak ikus ditzakegu.

Azkenik, jakinarazi nahi dizuegu ez dela uda tristea izango, ezta jarduerarik gabea ere. Uda honetarako jarduera seguruen programa bat lantzen ari gara, adin guztientzako kultur, kirol eta aisialdiko ekitaldiekin. Datozen egunetan udako programa honen berri emango dugu.

Gora Puiu! Gora Santiago!

M. Rosario Guillén Guillén